

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pakita Anabitarte Guruzeaga

*Donostia,
Gipuzkoa
(1920-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Intxaurrondoko Pellizar baserri-sagardotegian jaio zen, gaur egun desagertua, Altza herriaren parte zenean. Aita bertakoa zuen, sagardogilea eta zinegotzia Altzan, eta ama inguruko beste baserri batekoa; hura Bretxara joaten zen berdura saltzera. 9 senide ziren, eta Pakita zen gazteena. 1918ko gripearekin familiako hainbat kide hil ziren, amona eta aita tarteko. 6 urterekin Grosen hasi zen eskolan, moja jesuitinekin; gero Intxaurrondon eta Herreran ere ibili zen. 11 urte zituenean ama hil zitzaion. Comercio eskolan hasi zen, baina ezin izan zituen ikasketak bukatu, gerra etortzean eskola itxi zutelako, eta ospital militarra bihurtu. Osaba bat fusilatu egin zuten. Esnea partitzen eta ahizpa jostunari laguntzen egin zuen lana. Baita haur kotxeak egiten zituen lantegi txiki batean ere, Ategorrietan, ezkondu artean. Zazpi seme-alaba ditu.

Zintak

DON-048

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-30
- **Iraupena:** 116 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Etxe ingurua

- **Erref:** DON-048/002
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:00:34. **Bukatu:** 00:02:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Intxaurrondon jaio zen. Palazio asko zeuden orduan, eta likore fabrika ere bai; esnea eramaten zuten baserritik hara. "Mons" izena nondik datorren.

2. 1918ko gripearearen kalteak

- **Erref:** DON-048/004
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:02:21. **Bukatu:** 00:05:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Pellizar baserrikoa zen. Senideetatik gazteena zen Pakita, eta aita gabe jaio zen. 1918ko gripearekin hil ziren familiako asko: aita, bi anai-arreba eta amona. Sei ahizpa eta hiru mutil ziren. Altzako kontzejala izan zen aita 1914tik 1920an hil zen arte.

3. Altza eta Donostiako muga

- **Erref:** DON-048/006
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:08:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Altza herria zen garai hartan, handia gainera. Donostiako muga bere etxetik gertu zegoen. Muga non zegoen esplikatzen du. Pasaiarekin ere mugakidea zen. Senarraren aita udaletxeko ur kontadoreak begiratzen ibiltzen zen; hark kontatzen zizkion halako kontuak.

4. Mojetara Grosera

- **Erref:** DON-048/007
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:08:41. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Eskolan Donostian hasi zen, sei urterekin; Grosera joaten zen ahizpekin, oinez. Gran Via bukaeran zegoen eskola; villa bat bezalakoa zen, moja jesuitinena. Intxaurreko zaharreko eskola publikoetan ibili zen gero. 14-15 urterekin komertzio eskolan hasi zen, baina gero gerra hasi zen, eta akabo ikasketak.

5. Uniformearekin eskolara

- **Erref:** DON-048/008
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Zurriola ingurua nolakoa zen: hipikako militarrek ikusten zituzten ikastetxeko leihotik. Erdaraz ikasten zuten mojekin. Uniformea erabiltzen zuten: gona urdina, blusa txuria, oinetako beltzak, eta sonbrerotxo bat ere bai.</p>

6. Merkataritza-eskola

- **Erref:** DON-048/011
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:16:36. **Bukatu:** 00:19:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Intxaurrendoko eskola publikoak non zeuden. Merkataritza-eskola itxi zutenean, gerra garaian, ospitale militarra jarri zuten. Ez zuten denek nahastuan ikasten. Ikasgai batzuetan, neska-mutilak elkarrekin egoten ziren.

7. Neskak, etxean ala jostun

- **Erref:** DON-048/012
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:19:36. **Bukatu:** 00:21:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Ahizpa zaharrena ezkondu egin zen, bigarrena jostuna zen; hirugarrena ere etxeko lanetan ibili zen. 11 urte zituela galdu zuen ama. Hark berdura saltzen zuen Bretxan, eta esnea partitzen zuen. Bera ere ibili zen horrela, koskortu zenean. Garibai kaleko bi etxetara joaten zen. Tranbian joaten ziren.

Transkripzioa

Zaharrenetakoa ordun ya zeona... zaharren-zaharrenetakua zan aurrena ezkondu zana, zertako zan... aita hil zalako in zuten ba ezkontza atzeatu pixkat. Eta gero ba bigarrena... jostuna ikasi zun. Eta ya etxian eoten zan ba... kanpoako lana iteko're bai. Jostuna, ordun "o sea", iten zan, ohitura zeon, e, ba kanpoko jendiantzat'e erropak in, o bai umientzako'e bai, afiziyo handia zeukan, eta jostuna. Eta gero neskatan hirugarrena... e'bai etxeko lanak eta zea. Eta klaro, ama're galdu giñun nik hamaika urte nitula. Eta orduan ba... ahizpa hau...

-Etxeko kargu.

-Bai, etxeko kargu in zan ta jutun zan... Zertako ama jutun zan... lehelengo klaro, baserri haundiya zan eta terreno asko... eta zea, berdura gauzak jaso eta Bretxan... Bretxara jutun zan saltzea. Eta esnia're bai.

-Esnia partitzen zun etxez etxe?

-Bai, partitzeko harea. Eta're bai jutun giñan etxieta, zertako hemen'e... hemen'e "según" ze bagiñuzen villa batzuek esnia partitzeko, segun ze, ta han Bretxan ba're bai. Igual ni... tokatu izan... ume batzutan... ya pixkat koskortu nitzanian... ba jartzen zian marmita batian eta holako etxeta, Garibai kalia banitun bi etxe, gero beste hor, e, Cine Miramar, nola da hor... ze kale da hori? Estee, ez naiz gogoratzen. Eta hola, hiru o lau bazian. Eta gero Bretxan bertan jutun zizkayonen esne billa. Eta gero berdura saldu, eta gero erosketak ein etxeako, e... eta gero txisterak [...] Eta tranbia, tranbiak utzi [...] hemen, nola do zubiya, hor tranbiak utzi ta etxea. Eta gero ama hil zanian ba ordun ahizpa bat hasi zan lan hortan. Eta gero ba beste... nere aurrekua ez, aurrekua, bai ha're etxian, ta hau're bai eskolan ya Bergaratikan etorri zan eta... eta hola.

8. Gerra hasi zenean

- **Erref:** DON-048/013
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:21:46. **Bukatu:** 00:23:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Gerra hasi zenean, emakumeak bakarrik geratu ziren lanak egiteko. Sagardotegia zen Pellizar; Oriotik ekartzen zuten sagarra. Dolare ederra zuten, aita egina. Saldu egiten zuten sagardoa, eta ganadua ere gobernatu behar zuten. Morroia hartu zuten. Mutilak frontera eramane zituzten, derrigortuta. Senarra ere bai, 18 urte egin gabe artean.

Transkripzioa

Gero gerra nazkanti hau hasi zan eta hor ba gelditu giñan emakumiak bakarri. Eta genden, ba pentsa zazu, iten zian sagarduak, zertako zan

sagardoteiya, baserri hau zan sagardoteiya. Iten zian beti, urtero, sagarduak. Eta ekartzen zan sagarra, hemen klaro inguruan ez zeon, Oriyotik; baserri bat ya hartuta... hartuta zeukaten eta Oriyotikan ba setiembre aldian etortzen zan ya garaiya, eta klaro. Tolaria zeon oso... gure aitak iña izan bihar zun, eta tolaría oso ederra. Bi [...] hoitakua. Eta guk in bihar izandu giñun, bai sagardua eta gero ya zeatzen danian, bere tamaiñan jartzen zanian... ze esango dizut, nola... helduta, ba saldu. Eta gero hortik aparte ba giñuzen ba ikuilluan ganaduak. Haik gobernatu. Mutil koskor bat etortzen zan gure launtzea ba zeoze emanda ta hori... eta hola, eon giñan hor emakumiak bakarrik, zertako anaya hemen bat giñuna, hua soldaduko garaiya etorri zanian eaman in zuten, eta harekin ya... lana iten zun hemen supermerkatua daon hortan zeon likore fabrika bat, eta ibiltzen zan bea partiketa eta hor. Eta eaman zuten zeara, eee... kamioneta eta txoferra ta dena, ba frentea. Eta bestia zaharrena´re bai. Eta hala, emakumiak bakarrik eon giñan, ba hola.

-Ze joan ziran, derrigortuta gerrara?

-Klaro, klaro, klaro, hombre zea, soldadu garaiya! Bai, nere gizona, ba pentsa zazu ordun ba... nere edadekua zan: hogeí euneko diferentzian giñan. Eta hemezortzi urte kunplitu gabe eaman zuten. Esaten ziyoten “la quinta del biberón” hayei, klaro, hemezortzi urte in gabe. Eta ba hor [...] gero ba ba... Hala´re nolabaite libratu zian, esan nahi det arrixkatu, baiño beste asko ba hor gelditu zian bidian. Eta ba hola.

9. Osaba fusilatu egin zuten

- **Erref:** DON-048/014
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:23:53. **Bukatu:** 00:26:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Amaren anaia gazteenak sagardotegia zeukan San Franzisko kalean, eta falangista kuadrilla batek ordaindu gabe alde egin nahi zuen handik. Ordaintzeko esan, kolpeka hasi eta Ondarretako kartzelara eramán zuten. Andreak janaria eramaten zion. 12-13. egunean han ez zegoela esan zioten, libre utzi zutela. Ez zuten ezer jakin hari buruz denbora askoan. Hernanin hil zutela zabaldu zen. Duela urte gutxi jakin zuten gertatutakoa.</p>

Transkripzioa

Eta gero ba hortikan aurea ya ba bueno, ba klaro, e noizpaite zerea, Franco... aurea jun zianian “cuando menos” hau ez zan beste... gerran aitu, baiño eman zuten zea gogorra, zertako gu gelditu giñan familiyan... Nere aman anai gaztiena... zeukan sagardoteiya San Francisco kalian. Eta arratsalde batian, o ez dakit, goiz aldian, eguardiyan... o kuestiyoa da falanjista kuadrilla bat sartu zian, ya tropak sartu ziranian honea, eta ba bueno, ba emateko, emateko hau ta hua, emateko... ta jan zuten, in zuten ean, zeako bat eta gero ba bueno... alde iteko zea, ba pagatu gabe. Eta esan ziyoten ba bea hortatik bizi zala eta mesedez pagatzeko, ta hola. Eta ez zutela pagatzen, golpetan hasi ziaten, hartu zuten, eaman zuten Ondarreta, han zeon kartzela ordun, eta gaur arte. Hamabi egun o hola ustez eon zan han, eamaten ziyon andriak ba xesto... minbrezko orduan xestuak ibiltzen zian, zeozter jateko, eta gero´re bai esan ziyotela, eskatu ziyotela manta bat eta ez dakit hamabi o hamahiru egungarrenian ba

bueno, ez eamateko geyo, han ez zeola. Eta aber nun zeon. Ba ez, ez, ez, han liburuan zea firmau... e, libre, libratuta zeotzela. Eta geyo ez. Eta manta hori entregatu ziyotela ba hori, manta baztarrian, hemen zeukala hola korapillo bat eiña, gogor-gogor-gogorra. Harekin ze esan nahi zun? Ba hori, eta zerea, gero esaten zuten: bai, mendin ze itea ez dakit noa eaman zituztela, geo beste aldea, eta ibili zan andria, alargu... bueno, bai, alarguna, klaro, eta nere ahizpa batekin, ba launtzen batea eta bestea... dana gezurra! Gero ya etorri zan susmurra: Hernaniko tarti hortan zeola beste askokin. Eta hor beti kezka horrekin, baiño ezin ziñun pausoik eman iñoa, eta oain... Oain dala hiru o lau urte ez dia izango, jakindu deu seguru nun daon.

10. Nola jakin zuten osabarena

- **Erref:** DON-048/016
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:26:52. **Bukatu:** 00:28:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Nola jakin zuen osabaren hilketarena. Hernaniko kanposantura joan zen semearekin, han jarritako plaka ikustera. Izena bazetorren: Joan Guruzeaga Illarregi.

Transkripzioa

Orduan, oain dala ba, ez dakit ba nik, lau urte o hola telebistan etorri zan ba Hernanin nola izugarrizko omenaldia in zutela eta ba hau ta hau, eta kezka horrekin. Ta klaro, ni gelditu nitzan batekin; ahizpak-eta hil zian, eta bakarrik nere aurrekua... Hil da oain dala bi urte hil da ta. Eta hari esan niyon: "Jontxo, eon naiz tentatuta e ayuntamentoko... Hernaniko ayuntamentuan numerua billatu det telefonuan, eta deitzeko, jakiteko haren izena aber daon hor", baiño ez nitzan atrebitzen. Zertako klaro, beren familirik iñor ez zeon ta... azkenian ba ez giñun ein. Baiño ni nere... neon beti kezka horrekin, Hernaniko hor zeozer argitu nahi dula. Eta klaro, nere semia lanian dao Iruñan, eta etortzen zen eta hola, behin esan zian: "Nahi dezu egun batian juteko zerea, Hernanira aber han, eee, kanposantura jungo gea, zertako han emen dao zea; bai, nik ikusi nun telebistan ba plaka haundi bat, danen izenakin". "Ba bueno, ba guazen". Hala jun giñan goiz batian, eta bueno, billatu nun, giñun kanposantua, ta klaro, sarreran, berritua dao, oso ondo jarriya, eta gero plaka bat, dana hordoiltua, bakizu, burniya danian dana hordoiltua ta... izenak ba... ba danenak. Eta hola billatu giñun...

-Eta han zeon.

-Eta hantxe zeon. Hantxe zeon. Eta hor ikusiko dezu Juan Illarregi, Guruzeaga Illarregi.

-Bai, Guruzeaga Illarregi.

-Hori da, hoixe. Eta hori ya argitu nunian ba ematen zitzaidan, ez dakit ba nik e... "cuando menos" badakizu, hor daola.

-Bai, zer... behintzat zer gertatu zan jakitea, ez?

-Klaro, hoixe, jakitia. Ezer ez dezu konsegitzen, baiño "cuando menos" bai, ba hori.

11. Milizianoak esne bila

- **Erref:** DON-048/019
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:30:49. **Bukatu:** 00:34:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Gerra hasi zenean, ahizpa zaharrenarekin Txofreko zezen-plazara joatekoa zen, lehen aldiz, baina ezin. Milizianoak esne bila etortzen ziren baserrira, eta txartelak ematen zizkieten, gero kobratzeko. Papertxoekin joan zen diruaren bila, Intxaurrondo zaharrera. Irailean sartu ziren. Bidea lehen nolakoa zen. Bandera espainolarekin sartu ziren; eta beraiek beldurrez. Tiro markak.

Transkripzioa

-Gerra etorri zanian, e... nola gogoratzen dezu...? Nola hasi zan?

-Nola hasi zan? Ba beida: eee, klaro, ni neska gaztia nitzan, eta zerian, baserriyan, giñun sagardoteiya, baiño ya udara aldea, bukatzen zan ya kanpaiña, eta nere ahizpa zaharrenak ba... beai gustatzen zitzaion ba udara denboan Donosti... bakizu, Aste Nagusiya, eta zezenak-eta eoten zian, hor, e, Txofreku hortan. Eta ni sekulan ez nintzan jun, ta ordun in nitun ba hoixe, hamabost urte, hamasei itekuak. Eta "ba bueno, aurtan eamango zaitut". Eta entradak, sarrerak eta denak bazitun... hori, igandiakin; eta klao, larunbatan hasi zan, krixton zeakin, eta akabo gue ze... gue korrida akabo! Eta hortan, holaxe hasi zan. Tiruak hemendik eta hor, klaro, kuartelak zeozten hor. Eta hor dena zian basarriyak. Oain dena etxia dao, baiño zeozten basarriyak, eta hemen ba bildurak. Bildurak danak, eta hemen ba... Halare, hemen bertan ba ez zian /etzian/ francotarrak zeatu. Eta hemen republikano batzuk bazeozten, eta ordun hartu zuten... goiko hor konbentua, Mirakrutzen badao, hor dao oain parrokiya, baiño... hor eta... hor hartu zuten, eta pixkat antolatu zuten beren jendiakin, eta gure baserrira etortzen zian ba hor... ba gizon batzuk hor lanian o... haintzako ai ziala, ta klaro hor, konzentratuak zeozten milizianok, "miliciano" jendia, batzuek. Eta ordun etortzen zian gure etxea eta beste baserrita esnian billa. Eta marmitak ba... eamaten zituzten, esnia, eta ematen ziguten hainbeste litro, ba bale bat. Eta esaten ziguten: "Bueno, hau esango dizute noiz jun behar dezuten kobratzea". Eta hola [...] bai, akabo, izango da ba... Eta hola ba ni akordatzen naiz ba behin, ba ya [...]... zertako hasi zan hau, zerian, julio, setienbre arte. Setienbrian sartu zian. Eta tarti hortan balebak... eta klaro, etxetikan ni gaztiena, umiena, ba bialdu ziaten nei, papertxo hoiekin. Ta jun nitzan, eta kasualidadez hor, zeau... buru zeozten bezela ba ya gizon bi... bi gizon ya ba karrera [...], dotoriak, baiño hor Intxaurrondo Zaharrian bizi zian, zea, etxe desberdiñian baiño hor. Eta juten giñan gu esnia eamatea bostero, eta klaro, han birian eta ikusiya, ezaunak giñan, baiño. Ta ni jun nitzanian, klaro, komentua izugarriya... Ba miliziano hoitako batek eaman zian ez dakit ze biretan... galdu ingo nitzan, baiño: "Ale, pasa aquí". Eta sartu giñan, eta hoitako batek ikusi zianian: "¿Qué andas por aquí?". "Pues he venido con los vales". Ai, ai, ai, ai... [...] "bueno, vete a esa otra sala". Eta [...] ta bestia, ez dakit haren... familikuak zian biyak beren artian, eta harea. Eta harek [...]. Eta bueno, hartu zitun paperak, [...] zitun eta bueno, ordun zan diruakin, ez dakit zenbatian patuko ziguten, ordun ez zait gogoratzen re libra esniak zenbat baliyo zun, baiño patu ziaten, eta ya

atzenian ya, tropak sartu zianian, ba gelditu zian dozena erdi bat o kobratu gabe, baiño bueno. Eta holaxe, ya sartu zian, goatzen naiz gaiñea, nere ahizpa hoitako bat... ba jun giñan ba... berdura jasotzea plazara juteko, e, hurrengo eunian, eta hor gaiñan ba azak eta gauzak jasotzen... eta halako batian ba nabaitu giñun hor [...], zertako hoi leno bajuo zeon, leno kamiyu hori [...] altu do, ta gero jetsi in zan, hasi zanian ba zea, autobusak... eta zea, holako... Ttranbia ezin zun hortikan pasatu; pasatzen zan hemendik, horko tunelakin... hemendikan pasa zan, pasatzen zan horko tranbia, biretikan. Eta ba bueno, ba... hor ikusi giñun ba, zean musikan ta kantari ta... Mekatxis, hor goitik, ta bandera espāñolakin ta... Etorri zitzaigun bildurra... sartu zitzaigun [...]. Jetsi giñan gue berdurakin, hortik behera, eta etxetikan ateatzeko bildurak eon giñan! Bildur-bildur-bildurak. Eta klaro, tiruak. Hor batozte ayuntamentuan, Donostiyan, markak tiruanak, badozte. Gero bestian zera ere bai, Hotel Maria Cristinan´re bai. Segun ze tokitan ba tiroteua izan zan /izantzan/. Eta ba hola.

12. Euskara debekatuta

- **Erref:** DON-048/020
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:34:59. **Bukatu:** 00:36:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen. Fitxatu samar zeuden. "Langileen Batailoietan" ibili ziren haien bikotekide asko. Diktadura.

Transkripzioa

-Eta gero in zan ba hori... ezin ziñun euskeraz hitz ein. "Hable usted cristiano" esaten zizuten telefonotik hitz eiten baziñun euskeraz.... Eta holaxe, holaxe. Giñan fitxatu xamarak, baiño klaro...
-Eta zu... urte haietan ze iten zenun? Plazara jun?
-Ez, ez, ez. Ni ya... plazakok ya, kontu [...] ya ba, re bai gaiñea izan zituzten e, hemendikan milizianoak, zea, ezkerraldeakuak zianak hemendikuak ba Bilbora jun zian /juntzian/. Eta ordun nere ahizpan e... ni gaztena, konpaziyo batea esango izut [...]. Ne aurrekua ez; harek bai, nobiyua zeukan hara juna, eta gero zerian, harrapatu zituzten ya prisionero, ba "batallón de trabajadores" o hortan nazionalakin ba ibili zian asko. Eta geo beste aurreko hua kosta zan lokalizatzia. Azkenian ba eman zuten... ba nolabaite lokalizatu zuten. Eta besti honena: ba gelditu zan soldadu hemen, zertako zeukan aita alarguna, eta klaro, zeon aita, nere koiñadu hori, bere aita e... lau semekin, baiño emakumeik iñor ez etxian, eta ordun hau, zarrena, jardineru bezela ibiltzen zan beste talde batekin, eta aitari launtzea. Eta gero ba bueno, ba orduan ba ya hauek ezkondu zian, eta gelditu zian han, eta hori. Pixkana-pixkana-pixkana holaxe jun zan denbora; gero soldadu´re eaman zuten, Estellara eta... bukatu zan arte eta diktadura dexente hor. Zan soldadu... zarrenetakuak. Nere gizona izan zan "del biberón", gaztienetakuak, eta hoi zarrenetakuak. Eta gero ba ya tira. Ba, ba, ba... ya nunbait... azaldu ya zan ta... diktadura hainbeste denboran, eta hori. Beti hola fitxatu xamarakin, baiño...

13. Sagardoa egiteko prozesua

- **Erref:** DON-048/021
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:36:51. **Bukatu:** 00:40:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Gerra izan zen bitartean, emakumeak bakarrik zeuden sagardoa egiteko. Kamioietan ekartzen zuten sagarra Oriotik. Zakuak bizkarrean hartuta igotzen zituzten ganbarara, eta han hustu. Behean zeuden txikitzeko makina eta dolarea. Zukua tina handi batera joaten zen. Ardatzak. Nola prentsatzzen zen, egunean bitan. Kupelak. Patsa oso gustura jaten zuen ganaduak, lastoarekin nahastuta. Hankekin ere zanpatzen zuten.

Transkripzioa

- Gerrako urte hoitan ze iten zenun?

- Ba gerra izan zan bitartian, ba, klaro, geunden emakumiak bakarrik. Bakarrik.

- Sagardua nola iten zenuten?

- Ba, sagardua…

- Nola ekartzen zenuten sagardua Oriyotik?

- Bai, beida, Oriyotik etortzen zian kamioiyian, ya kamioi bat… Hor Mirakutzan bazeon gizon bat, kamioia denboa hoitako zaharrak, kajoikuak, eta zakuetan. Ta hor atzetikan, konparaziyo batea, zeon baserriya… ba nola esango dizut /esangoizut/? ba hola baserriya ta biria hemen ta hortikan maldatxo bat zeukan ta hor sartzen zan atzetikan balitzake aurreneko planua, iyotzeko, tolarian sartzeko. Eta gero tolarian sartu, zakua bizkarrian hartu ta eskailleratikan iyo ta ganbarara. Eta han ganbaran zakua han utzi. Eta gero ya bere garaian ya, ba, bueno, kupelak-eta ya preparatuak zeoztela, garbiyak eta denak, ba, ordun eiten zan zakuak hustu ganbaran bertan eta han tranpilla bat bazeukan hau baiño haundiyo eta han eskobariakin zulotikan eta makina zeon traka-traka-traka-traka-traka behetikan atera zan eta han behiyan eoten zan bat pala batekin nahastutzeko tolarian barrenen. Nahastu zea, ya sagarra txikitua, eta gero ya nahastuan ein bihar zan, ba, konparaziyo batea, ze esango dizut? ba hau hola [tolaria] haundiya, baiño ein bihar zizun sagarra ba jarri hola pillan, hemen pasilluak… e? Haren zea, zumua, bazterretikan, baxtar hontan zeon xulo bat eta hemendikan juten zan tina haundi bateau. Eta gero pixkanan-pixkanan, zeak, ardatzak zeozten, bat hemen eta bestia hemen, eta gero zeozten egurrak. Aurrena, zea, kanalito batzuek jarri hola, kanalito batzuk. Gero egurrak, zabalak, hola, estilo hontan. Eta gero tronko batzuek [han] kontra-kontra batzuk eta gero beste batzuk hola. Eta gero ya hartzen zan zea, makina ardatza, pixkanan-pixkanan motorrakin jeisten zian ta harekin bultzata, bultzata, bultzata zumoak atera arte bere kanal hoietatikan. Eta hortikan hortikan txulo hortatikan tina haundiya zeon hortikan eta gero hortikan zabaldu kupeleta.

- Prentsatu zenbat aldiz ein bihar zan?

- Ui... egunian bitan, egunian bitan iten zan hori. Eta gero ya pixkanan-pixkanan gelditzen zan , zea, patza, osea, gogorra, ya zumoik ez zeola / etzeola/. Eta zea hura han gelditzen zan arrastua ganaduantzako lastuakin nahastuta oso gustora jaten zuten eta alimento haundiya emen zeukan.

Hala esaten ziguten, zea, beteinayuak. Eta “Bai, bai, bai, eman lasai”. Eta, zea, lastuakin nahastu eta hua jaten zuten. Bai. Eta gero, klaro, [izaten zan] asko eta [genun] beste zulo bat eta hara botatzen zan sobratzen zana [pixkana-mixkana harti] eta gero hankakin aitzen giñan zanpatzen.</p>

<p>- A bai?</p>

<p>- Bai, ondo xehatzeko, klaro, bestela eingo zan zeatu, e? igual, zea, lizundu o hola. Eta hankakin zanpatu-zanpatu-zanpatu eta gero egunian bihar zan zeakin, sardiakin, atera pixkana eta gero ganaduei eman. Eta hola iten [ziun]… hola iten giñun lana. Eta gero, ba, klaro, ya hori dena desagertu zan.</p>

14. Sei kupel

- **Erref:** DON-048/022
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:40:19. **Bukatu:** 00:41:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Sei kupel zituzten, bat 7.000 litrokoa, besteak 3.000koak edo. Kanpainan gehienak betetzen ziren. Sagar geza eta gazia nahasten zuten. Onenak erreta jateko hartzen zituzten.</p>

15. Ume kotxeen lantegian

- **Erref:** DON-048/026
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:53:12. **Bukatu:** 00:57:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Ezkondutik aurretik Ategorrietako fabrika batean ibili zen, umeen kotxeak tapizatzen. Ahizpa zaharrenarekin bizi izan zen aurretik, eta josten laguntzen zion. Iturritxo tabernaren ondoan zegoen fabrika. Panpinentzako ere egiten ziren, erregetarako. Goian emakumeak egoten ziren, eta gizonak-eta armazoiak egiten zituzten. Hamabi bat ziren denak. Pildain y Urizarbarrena zen tailerra.

16. Zakurrak koska

- **Erref:** DON-048/027
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 01:01:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Inguruko fabrikak: likore-fabrika, autoena... Esnea partitzera joan zen batean, zakurrak nola egin zion koska. Sustoa pasatzeko, patinak oparitu zizkion etxeko nagusiak. Igandetan familiak joaten ziren meriendarekin sagardotegiko belardietara. Beti lanean, ez zuten jolasik egiterik ia.

17. Esnea eta sagardoa partitzen

- **Erref:** DON-048/028
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:01:05. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Euskara » Lexikoa
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Baserriko lanak: eskolara joan aurretik, esnea partitu, eguerdian sagardoa partitu txotxetik, eta gauean berriro esnea. Jai Alairaino joaten ziren. Bretxara ere bai batzuetan. Marmitak eta "txantxillak", neurriarekin. Behiekin egiten zen kanpoko lana, goldearekin eta arearekin.

18. Baratzea eta jatekoa

- **Erref:** DON-048/029
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:03:30. **Bukatu:** 01:06:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Baratzeko lanak. Berdurak. Lurra nola prestatzen zen, goldea pasatzeko. Dena eskuz. Babarruna, urte guztirako. Igandetan garbantzua. Eltzeko haragiaren zopa egiten zen, berdura pixka batekin. Postrerik ez, sagar errea tarteka. San Martzialetan gingak ekartzen zituen amak, Bretxatik. Angulak ere bai, eta langostino txikiak. Antxoa jaten ez ziren aspertzen. Etxeraino etortzen ziren arrain saltzaileak.</p>

19. Sagardotegiko kaxuelak

- **Erref:** DON-048/030
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:06:59. **Bukatu:** 01:09:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Kaxuelak egiten zituzten, sagardotegian saltzeko. Bakailaoa, txuletak... Txuleta ogian, 1,25 pezeta. Sagardoa txarroan. Kuadrilla batekoek bi pezetakoa uzten zuten beti, afarirako; Hernanin dantzan ibili ondoren bueltatzen ziren.</p>

20. Dantzarako aukera gutxi

- **Erref:** DON-048/031
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 01:09:33. **Bukatu:** 01:12:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Dantza asko gustatzen zitzaion, baina berandu hasi zen. Erreteriarra joaten zen, baina gutxi. Txotxekoa ekainean bukatzen zen, eta bestela ere lana zegoen. Santakutzetan, Intxaurrondon, sueltoan dantzan. Hiru musika banda egoten ziren. Bikondoa soinu-jotzailea.</p>

21. Zezenaren beldur, festetan

- **Erref:** DON-048/033
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:12:43. **Bukatu:** 01:15:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

<p>Intxaurrondoko festak. Sokamuturrarekin izan zuen sustoa kontatzen du. Taulara igo zela zezena. Txurroak jatea ohitura zen. Barkilleroa. Zinta jokoa,

bizikletarekin; neskek jartzen zituzten zintak, bordatuta. Bertsolariak:
Uztapide, Basarri...</p>

22. Intxaurrondo nola aldatu zen

- **Erref:** DON-048/034
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 01:15:42. **Bukatu:** 01:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Intxaurrondo nolakoa zen. Etxe gutxiago zegoen. Kanpotik etorri zen jende asko gero. Eskolan erdaraz egiten zuten. Baserri asko desagertu dira: Basotxiki, Zarategi, Sagastieder, Lizardi, Etxeberri, Argel, Tuniz, Otxoki, Txingurri, Londres, Paris... Altza aldera ere asko zeuden: Kataliñene...

23. Familia bati gertatu zitzaiona gerran

- **Erref:** DON-048/035
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:19:00. **Bukatu:** 01:20:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Baserri batean bizi zen familiari gertatu zitzaiona gerra garaian: aita alarguna, bost seme-alaba zituen... soldaduek bi anaia hil zituzten. Pakitaren anaiek bazuten tratua inguru hartako baserritarrek; inauterietan eta Eguberrietan elkarrekin ibiltzen ziren kantari.</p>

24. Etxez etxe kantari

- **Erref:** DON-048/036
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:20:27. **Bukatu:** 01:22:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Etxez etxe kantatzen zuten baserrietako mutilek. Aginaldoarekin merienda egiten zuten. Eguberrietan ohitura zegoen kantatzeko. Aritzen dira orain ere. Lehen, mutilak bakarrik ibiltzen ziren. Dirua, gailetaren bat... ematen zuten lehen.</p>

25. Sagardoa botilaratzea

- **Erref:** DON-048/037
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:22:09. **Bukatu:** 01:23:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Zizarra hilabeteen saltzen zen. Botilaratu aurretik, tabernetatik joaten ziren probatzera. Irailean egiten zen sagardoa, eta Eguberri alderako egoten zen puntuan.</p>

26. Baserria nola galdu zen

- **Erref:** DON-048/038
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:23:27. **Bukatu:** 01:25:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserria nola galdu zen. Anaia zaharrena Ameriketara joan zen gazterik, eta gerratik etorri zenean bigarrena etxera ezkondu zen. Jatetxea jarri zuten. Neskek partida gutxi atera zuten; hiru anaiek hartu zituzten erabakiak. Etxera ezkonduak anaiak baserria bota zuen.

27. Senarraren kontuak

- **Erref:** DON-048/042
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 01:29:53. **Bukatu:** 01:33:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Senarra ere Intxaurrondokoa zen. Basotxikiko alaba zen haren ama, Dolores. Aita Zarategi baserrikoa zuen; anaiak Ameriketara joan ziren, Argentinara, baina bera ez. Tarteka damutu ere egiten zen geratu izanaz. Haren emazteari, gerra garaian, bala bat etxean sartu eta buruan jo zion. Klinikara eraman zuten.

28. Aita sagardoa saltzen

- **Erref:** DON-048/043
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:33:56. **Bukatu:** 01:34:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Aita Altzan zinegotzi, eta sagardogilea. Negoziantea zen oso. Donostian eta Pasaian bodegak zituen, sagardoa saltzeko.

29. Trena eta tranbia

- **Erref:** DON-048/044
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 01:34:46. **Bukatu:** 01:37:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Trena beti ezagutu izan du, baporezkoa ere bai. Enkarguak zubia pasatuta egiten zituzten, eta umetan bidean entretenitzen zen. Tranbiari "montadillak" egiten zizkion, Herrerara eskolara joaten zirenean. Hiru tokitan egon zen eskolan.</p>

30. Arroketara umeekin

- **Erref:** DON-048/045
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:37:13. **Bukatu:** 01:38:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Hondartzara oso gutxi joaten ziren, aukerarik ere ez zuten. Arroketara bai, familia izan zuenean. Ur jolasak.

31. Arroketan II

- **Erref:** DON-048/047
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:38:40. **Bukatu:** 01:40:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Arroketan ikasi zuten igerian seme-alabek. Kapazoa haur txikia eramaten zuen. Ahizparekin-eta egunpasa joaten ziren. Arzakenetik gora igotzen ziren. Ordubete inguruko bidea. Bertan zer edo zer jaten zuten. Behin izan zuten despistea kontatzen du. Bost-sei familia izaten ziren Mendiolako azpian.

32. Ura eta labaderoak

- **Erref:** DON-048/048
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:40:55. **Bukatu:** 01:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Beti ezagutu du kanileko ura baserrian. Iturrian garbitzen zuten arropa, askan. Ganaduarentzat ere bazegoen aska. Labaderoa zegoen Intxaurrendon. Ur freskoaren bila Uliako gibelerak joaten ziren, marmitarekin. Sagardoa edaten zen gehiago, baina bera ez da zalea.

33. Sagardoa probatu ez

- **Erref:** DON-048/049
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:42:40. **Bukatu:** 01:46:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Sagardoa edaten zen ura baino gehiago, baina bera ez da zalea. Ez du inoiz sagardoa probatu. Anekdotak kontatzen du horrekin lotuta: gizon batek egin zion eskaintza, sagardoa edatearen truke.

34. Gose garaia

- **Erref:** DON-048/050
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 01:46:09. **Bukatu:** 01:50:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Erreteriarra joan ziren errentan, eta han arrazionamendua astean behin izan beharrean hamabostean behin zen. Intxaurrondora joaten jarraitu zuten, horregatik. Ogia oso txarra zen. Arraina nola lortzen zuten. Trikimailuak: ereiteko patata erosten zuten, baina jateko. Tranbian joaten ziren. Boniatoak eta zomorrodun garbantzuak.

Transkripzioa

-Ta komentatu zenidan gose garaiya-ta... zuek bizi izan zenuten?

-Oooi. Bazeon, bazeon bai, orduan razionamientuakin. Eta klaro, ni hemen... bizitu nitzan... ezkondu-ta in nitzan ahizpan etxian, baiña gero ya, aurreneko nexka izan nunian, ba jun giñan zerea... Errenteian ai zian hemengo ezauna batzuk etxe berriak eiten, hor eeee... Ondartxo aldetik. Eta ba bueno, tia, errentan. Eta hortarako begiratu giñun hemen, baiña ya zeozten e, zea... etxe, etxiak galesti eta hori... eta han, ta bueno, errentan. Eta ba hola, ba bueno, ba jun giñan, eta... Baiña ze, zer neon ni... nundikan etorri da hori?

-Gose... gosia...

-A, gose denboa! Hemen giñun razionamentua, astian hainbesteko. Holako oliyo, holako zea, nola esaten zun... botilla batetikan “un octavo”, astebetetako bakoitzentzat, eta hola. Eta gero ba según zer alimento astian behin, baiña Errenteira jun giñanian han esan ziguten zala hamabost aldeko behin, eta nik esan nun: “Jolin, hamabost aldiko behin eman... ba astebete, astebeten gastatzen baitut, ba gero beste... hurrengo asteako ez dakat!”. Eta ordun ez nun aldatu, eta segitzen nun honea etortzen. Eta honea etortzen nitzan tranbian, Errenteitik, eta hartzen nun hemengo razionamentua, zertako liburutxuakin, kartillakin... kupoiak kentzeko-ta hemendik hartzen nun, eta holaxe moldatzen giñan. Eta gero, gizona nola harrek bai... ba zebillen ba kam... zean, kamioiyakin, ba zeozer igual ekartzen zun kanpoaldetikan...

-Ezkutuan...

-Ezkutuan eta modua baldin bazan, ba hori, nolabaite moldatzen giñan.

-Orduan goserik ez zenun pasatu...

-Gosea, nik uste bai, zeakin... ogiyo oso txarra, eta bai, soltera neola nik uste det pasa giñula, oaindikan ezkondu baiña leno. Bai, zertako ni ahizpa batekin bizi nitzan, eta... eta klaro, ba... Eta gero, beste ahizpa zarragua... Bere gizona zan e, zea, Donostiko moillako semia, eta ordun, lanetik atera, Tabakaleran aitzen zan, eta etortzen zan horrea; eta bere arreba bat ibiltzen zan ba... barkuak alleitzen zianian ba bakizu, han e ajetreuak... ba zeinek eosten zun ta hola.

-Bai, pixonera.

-Bai, hori da. Ta ordun fardelian beti eamaten xizkan o antxuak dila, o bat eta beste, ta beti ematen ziuten zeozer. Eta bai, e, hortan´de... hortatikan bai. Eta hola, nolabaite... eta “según”, klaro. Bueno, gero patata garayian... hortikan´e iten giñun gure... gure zeak. Hemen Herreran zeon almazena bat, eta saltzen zuten zea, patata, eraintzeko. Baserriko jendiantzako eraintzeko. Eta behin hola berriketan ai geala ahizpan artian, esan giñun: “Eta kontxo, gu baserrikuak gea -ez giñan bizi baserriyan baiña-baserrikuak gea, zertako iten deu...”. In bihar giñun “declaración jurada”; Buenavistan zeon hor... ofizina batzuek, eta ba bueno. Eta bueno, ba kuestiyua da, “behin prueba ingo deu, gero ze eamango gaitue, zea, kartzela?”. Ba baldinbaite ez. Eta ba bueno, hola, ba jun nitzan... ni, ni jun nitzan, nik uste det jun nitzala... “Eta nunguak zeate ba?”. “Ba Pellizarkuak”, eta “bueno, zenbat bihar dezute?”, “ba ez dakit, gutxi gorabehera berrogeita hamar kilo”. Eta ba bueno, iten ziguten han papera,

eta geo jun bihar giñun eee... Herrera ailletu baiño lehen, tartian hor Contadores o nola zian hor, pari hortan hor zeon almaneza, almazena. Eta juten giñan, eta ba bueno, zaku batian ematen ziguten bali harekin paatu... Eske klaro, ez zan... lapurreta ez zan /etzan/! “Según” zer kostatzen zan paatu, eta... Gero, Herreran oin nola [...] hor tranbia etortzen zanian, ordu erdi bateko behin zeukan bagoia, eta gero hortikan Intxaurrondoa etorri, eta gero hiru ahizpakin partitzen giñun, eta holaxe. -Orduan merkio ateatzen zenuten patata... -Honbre, klaro, zea... zea baldin bazeon, eraiteko baldin bazan ba bai. Eta holako... klaro, eske... pentsatu bihar ziñun gauzak, e! Eta batzuetan patata gauza... eske boniatuak ematen zituzten, eta nik aiii, boniatuak, ze gaixki hartzen nitun! Eta batzuetan barbantzuak o zeak, xomorruakin. Eta holakotan ´e bai... puuuf.

35. Etxeko eta eskolako zigorrak

- **Erref:** DON-048/052
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:51:14. **Bukatu:** 01:54:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Hondarra ekartzen zuten baserrira, kamioian, ganaduari azpian botatzeko. Umeak jolasean ibiltzen ziren hondar pilan, baina anaiak ez zion uzten. Zigortu ere egiten zuen, oso gogorra zen eta. Ama oso gazte galdu zuen. Eskolan ere jotzen zuten, Herreran. Baserritarrei makila ekartzeko esaten zien irakasleak, gero horrekin jotzeko. Behin, makilak leihotik kanpora bota zituen. Bihurria zen. Baina matematikak eta geografia asko gustatzen zitzaizkion.</p>

Transkripzioa

-Lehen komentatu dezu hondarra ekartzen zenutela... nundik?
-Hondarra ekartzen zan honea... e ba, hori, e... ez dakit nundik ekartzen zen; kamioiya etortzen zan; kamioi haundi bat, ganaduai azpiyan botatzeko, bai. Ekartzen zan belar zarra menditikan ´re bai, ba berua eukitzeko. Baiño ba zikiña ta dana hobeto [...], gero ba [...] zuten zikiña dena... Baiño ekartzen zun, eta klaro, botatzen zuten hor ba e zea, baserriya don aurreko aldi hortan; pareta bat zeon, eta hola, zabalunian. Eta jendia sagardoteira etortzen zan, ume jendia... ba hondartzan baleozteke bezela bere kubuakin-ta jostailuakin ta. Guk, klaro, momentua bagiñun libre ba juten giñan hara, baiño anaiyak ikusi ezkeo: [...] “Nundik etorri zea, o ze in biha dezu?”. Ta tal, korrika martxa! Eta hori.
-Zigortu... zigortu ere bai?
-Bai, nei bai. Anai horrek bai. Gaztienak ez, anai gaztienak ez, baiño bestia oso gogorra zan.
-Eta ze zigor izaten zian?
-Saska! Eskua. Buuuf. Bai. Bai, bai. Eta gero bere seme-alabak esan izandu diate, bai... “que era”... oso... oso gogorra zala. “Bai, bakit. Ez iazute kontuik esan, bakit ze gogorra zan”. Eta “en cambio”, eta bai, ama... ama

bizitu zan bitartian.... ba klaro, zeozer, e, igual enkargua ba uste baiño gehitxoago tardatu o [...], beste zeozer, eta klaro, ya anaiya zeozertan zetzian, aman azpiyan gordetzen nitzan, eta amak tapatzen zian eta hori, baiño... ama oso gazte galdu nun, eta aita lenuo... ta holaxe. Eta beti zea hori...

-Eskolan-eta jotzen zuten?

-Eskolan? Bai, Herrera jun giñanian bai. Eske, klaro, izaten zan, nik ez dakit ze maestra... e, mendialdian o baserri o zea... urruti bizi zianian, esaten ziyoten barilla bat ekartzeko, balitzake metro hoitakua; barilla bat ba... zeatzeko, kaskatzeko. Eta ba bueno, ba hola, ba o berriketan ai zea eskolako zeatan o ondokuakin, edo ta bat ta beste... ta kastigua. Eta igual ba etorri, ta deitu ondoa, ta barilla horrekin, regla bat balitzake, "ta aber, eskua, eskua..."; itxita eskuakin, ta iriki... ez, ez, eskua irikita ez. "Itxi eskuak!", eta kaska igual. Eta gogoratzen naiz behin ein nun... bazitun hiru o lau barilla hortakuak, eta bea ez dakit komunea o noa jun zan, eta hua barrenen zeon bitartian nik in nitun leihotikan kanpoa bota. "Zeinek bota du? Eta zeinek...". Ez, erderaz. "Zeinek bota du, ta zeinek bota du...". Ta iñork ez zun ezer esaten, baiño askotan bate bat izaten da, eta : "Sí, ha sido Pakita", eta bueno, kastigu bat... Etxea etorri nitzaneako telefonoz deitu zuten, aberiyan bat in nula. Eta etxea etorri, ta bronka. Eta gero... Eta holako, holako... Bai, e, nei esaten zian, e, ne ahizpak bihurriya nitzala. Baiño klaro, eske... Eta ba bueno, ze ingo dezu ba? Baiño eskolan "según" ze gauza gustatzen... matematika gustatzen zitzaidan pilla bat. "Según" ze... gramatika, hori ez hainbeste... Geografía ´re bai asko...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com